

136/2022 EBAZPENA, otsailaren 22ko, Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESIko Ospitaleko Pediatria Osasun Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearen urriaren 25eko 1317/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESIko Ospitaleko Pediatria Osasun Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urtarrilaren 19ko EHAA 12 zk. eta 2022ko urtarrilaren 26ko BOE 22 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko otsailaren 16an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoa adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Donostialdeko ESIko Ospitaleko Pediatria Osasun Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).


Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2022ko otsailaren 22an

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea
Langileen zuzendaria.

(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)


DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
Esther LITAGO SOLA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

1. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO OSPITALEKO PEDIATRIA OSASUN ATAL SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Beatriz ROCANDIO CILVETI

Baztertuak:

- Inor ez

Donostian, 2022ko otsailaren 22an